

## HAUR LITERATURA

## Irakurle kritikoak

## ARTURO ETA KLEMENTINA

Adela Turin  
Ilustratzailea: Nella Bosnia  
Itzulpena: Fernando Rey  
Pamiela, 2013  
40 orri. 15 euro.

Asun AGIRIANO

Ideologiarik gabeko libururik ez dagoela diote, are gehiago, irakurleak haurrak baldin badira. Zaila da heziketarako aukera saihestea eta, hitz edo irudien bitartez, mezua doktrina ez bihurtzea. Haur literatura espresuki erabiltzen da material didaktiko eta pedagogikotzat; hori dela eta, askotan, mezuak helarazteko tresnak gailenduta, mendean geratzen dira sormena zein estetika bilaketa.

Badira ia 40 urte Adela Turin idazle eta editoreak "Dalla parte delle bambine" izeneko bilduma argitaratzen hasi zela Italian. Hizkuntza askotara itzuli zen berehala, sexuen arteko berdintasunaren aldeko erreferentzia bilakatu ostean. Gurean "Neskatoen alde" izenpean jasotzen ari gara, eta "Arturo eta Klementina" bilduma osoko ezagunenetakoa dugu. Denbora luzea igaro arren, oraindik liburu hauek behar-beharrezkoak dira –garbi esan dezagun– gizarteak matxista izaten jarraitzen duelako.

Alegia bat da dortoka protagonista hauen istorioa, alegia modernoa. Kontakizunaren hasieran animalia hauen arteko hartu-emanen ilusioa eta maitasuna dira nagusi, baina, denborarekin, monotonía kartzela bihurtuko zaio Klementinari.

Bidaiatu nahiko luke, margotu, musika jo... Senarrak emaztearen gaitasunak guxtiatsi egiten ditu, irri egiten die haren ametsei. Umiliatu ondoren, berriz, opariz betetzen dio etxea, Klementinak eskolaren gainean eramango dituenak, dorre luze eta astuna sortuz. Ez da asetzen horrela emazteak nortasuna gogobetetzeko duen grina. Ihes egiteko pausoak ematen hasiko da Klementina, emeki-emeki, dorroek egiten duten antzera.

Jakina! Liburuaren helburua bistakoa da, eta gaia erraz antzeman daiteke: askatasunaren aldeko kantua da, Disneyren maitasun ereduaren aurka doa,


hain zuzen. Gizon eta emakumezkoen arteko harremanetan bizi den oharkabeko biolentzia ere azpimarratzen da. Liburu honen gaiarekin paralelismo bat eginez, genero indarkeriaren ikerlariak azaltzen dutenez, matxismoa aldatzen ari da belaunaldi berrietan eta, egun, modu askoz «gozoagoan» burutzen da *mikromatxismoa*, isilpean.

Berrogei urte dira bilduma hau kaleratu zela, eta askok aurreko belaunaldiko kontuak direla uste duten arren, inkestek diote 18 urtetik beherako artean salatutako indarkeria matxista kasuak igo egin direla, maitasun erromantikoren idealak oraindik ere gazteengan eragin handia duela. Berdintasunaren hezkuntzan, beraz, asko dago egiteko, oraindik gizarteak ez baitio tokia ematen emakumeari, etxean eta eskolan oharkabeko biolentziaren adibide ugari baititugu.

Liburu honek irakurketa kritikoak egiteko aukera ematen digu, eta guraso eta haurren artean irakurtzeko gonbidapena. Izan ere, helduok irakurri egin beharko genituzke gure seme-alabek irakurtzen dituzten liburuak. Horrela mezu ideologikoak harrapatu eta eurekin komentatzeko aukera izango genuke. Irakurketa kritikoak egitea modu ederra da sentsibilizatzeko eta askatasuna praktikatzeko, estereotipoen aurrean barre egiteko. Kontakizun interesgarria da "Arturo eta Klementina" zentzu honetan: hitz egiteko akuilu egokia delako, Disneyren maitasuna deseraikitzeke, niaren desagerpenaz eta bestearenganako sakrifizioaz hitz egiteko. Oraindik ere gizartean pertsonak generoaren arabera bereizi eta bakoitzari rol zehatz bat esleitzen zaiolako.

Kritikoak izateko tresnak ematera dator bilduma berri hau; izan ere, berdintasunaren oinarritutako gizarte bat nahi badugu, horrelako ipuinak beharrezkoak dira. Behin haurrak zentzu kritikoan irakurtzeko gaitasuna izanda, edozer irakurtzeko gai dira, liburuarekin eztabaidatzen eta formazio literarioa jasotzen has daitezke.

Bilduma osoko ilustratzailea da Nella Bosnia. Bere irudiek indarra ematen diote istorioari, animalien figura errealista eta tonu biziak umore kutsuak ziprintintzen dute gaiak sakonean duen seriotasuna.



## HELDUEN LITERATURA

## Besteen mina

## IAZKO HEZURRAK

Egilea: Unai Elorriaga.  
Argitaletxea: Susa, 2014.  
Salneurria: 23 euro.

Estibalitz EZKERRA

Unai Elorriagaren azken lanak, "Iazko hezurak", 1970eko hamarkadatik 1990eko hamarkada bitartean jazotako indarkeria kasuen katalogo zabala eskaintzen digu. Abiapuntu moduan Irene Arrias izeneko fikziozko pertsonaiaren jaiotza dugu, 1971eko urtarrilean Algortan sortua bera, eta une horretatik hasita, Arriasen bila-kaera pertsonalaren kronologia oinarri hartuta eta Arriasen beraren esperientziekin tartekatuta, sona handiko sarraski, hilketa, atentatu eta tortura kasuak, nazioartekoak zein hurbilekoak, dela Ruandako genozidioa dela ETaren kontrako borroka zikina, azaltzen dizkigu liburuak.

Arrias bera gertaera hauekin obsesio-natu egingo da eta bere kabuz hasiko da haien gainean irakurtzen eta ikertzen, datu historiko bilakatuko diren horiek eta bere autobiografia kolapsatzeraino, munduko tragedia oro bere eginez. Liburuak irakurtzen ari nintzela Michael Rothbergen *multidirectional memory*


(norabide anitzeko memoria) kontzeptua zebilkidan buruan etengabe, testuak antzeko zerbait irudikatzen duela iruditzen baitzait. Kontzeptu horren arabera, gertaera jakin batzuei buruz ditugun oroitzapenak, memoria bera, ez da modu isolatuan garatzen. Aitzitik, beste istorio eta historia batzuekin loturak eginez gertatzen da.

Memoria kolektiboa lehia moduan (gertaera batzuk beste batzuk baino garrantzitsuak direla defendatzen duen ustea) aurkezten duten horien aurrean, beraz, Rothbergek argudiatzen du etengabeko negoziazioa dagoela oroitzapen ororen oinarrian, erreferentziaz eta maileguz josita dagoela gertaera jakin bati buruzko oroitzapena.

Zentzu horretan, memoria mekanismo emankorra da, inolaz ere pribatua edota pribatizatu daitekeena. Adibide moduan jartzen ditu Holokaustoaren eragina beste genozidio batzuen ondare negoziatzeko orduan zein Hegoafrikako bake eta adiskidetzaren batzordeak herrialdean apartheid garaian burutu ziren krimenak aztertzeko ezarritako irizpideak nola beste herrialde batzuetan, Txilen esaterako, antzeko egoerei aurre egiteari begira eredu bihurtu diren. Gertuko adibide bat jartzearren, Gernikako bonbardake-

ta tokiko tragedia izan arren, gertaera nazioartean gogoratua da bestelako zibilen kontrako bonbardaketen harira: Picassok bonbardaketen harira margoturiko koadroan inspiraturiko murala aurki daiteke Israel eta Palestina arteko hesian, 1937ko hondamendia palestinarren hamarkadetako jazarpenari lotuta.

"Iazko hezurak" memoria/memorializazio ariketa bat dela zalantzarik ez dago, indibidualtasunetik kolektibora eta tokikotik globalera jauzi egiten duena, bizipen pertsonalak errealitate/kronologia zabalago baten barruan kokatu eta haien arteko loturak etengabe bilatzen eta ezartzen dituen. Aipatzen dituen gertaeren kopuruari erreparatuz gero, Elorriagaren lanak norabide anitzeko memoriaren eredu muturrera eraman duela esan daiteke: miresgarria da zer nolako xe-



hetasunez azaltzen dituen 1970eko eta 1990eko hamarkada bitartean gertaturiko tragediak, eta nola txertatzen dituen Arriasen biografian azken horren parte bihurtzeraino. Arriasek gertaerekiko agertzen duen jarrera, geografikoki urrun egon arren gertu sentitzea besteen mina, Levinas filosofoaren pentsamenduan oinarrituta Judith Butlerrek esandakoarekin bat dator: bestearen sufrimendua airtortzerakoan frogatzen du batek norberaren eta bestearen gizatasuna.

Intelektuari begira "Iazko hezurak" gizakiek beste gizakien kontra buruturiko krimenen eta haien oroitzapenaren gainean proposatzen duen irakurketa erakargarria da, baina dela datuen kopuruagatik dela tonuaren aukeragatik testu itxia gertatzen da eta irakurleari aukera handirik ez dio ematen. Lan anbiziotsua da, hori bai.